

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko urriaren 1a / 599. zenbakia



**Unai  
Arantzabal**

**Etorkizun bikaineko  
txirrindularia**

**UDALA: UDALBATZA ISTILUTSUA ASTELEHENEAN/4 • KULTURA: GABERO ABESBATZA, HOLANDARA/12**

AZALA: MAITENA ARANA/ ARGAZKIA: GIPUZKOAKO TXIRRINDULARI ELKARTEA

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 24**  
MOZOS, Iparragirre 2. .... 943 76 12 15
- ZAPATUA, 25**  
CAMACHO, Oxirondo 4 ..... 943 76 11 74
- DOMEKA, 26**  
CAMACHO, Oxirondo 4 ..... 943 76 11 74
- ASTELEHENA, 27**  
ZABALA, Barrenkalea 25 ..... 943 76 16 87
- MARTITZENA, 28**  
GUALLAR, San Antonio 5 ..... 943 76 11 05
- EGUAZTENA, 29**  
ESTELLA, Matxiategi 5 ..... 943 76 19 63
- EGUENA, 30**  
MOZOS, Iparragirre 2. .... 943 76 12 15

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) ..... 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa ..... 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa ..... 943 76 62 46
- Ertzaintza ..... 943 53 47 20
- Osasun etxea ..... 943 76 24 40
- Asepeyo ..... 943 76 16 43
- Pakea ..... 943 76 13 49
- Angiozarko medikua ..... 943 78 90 27
- Antzuolako medikua ..... 943 76 62 23
- Odol emaleak ..... 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak ..... 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak ..... 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea ..... 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea ..... 943 76 62 46
- Udal Artxiboa ..... 943 77 91 32
- Igerilekuak ..... 943 76 20 51
- Kultura etxea ..... 943 77 91 58
- Liburutegia ..... 943 77 91 62
- Kiroldegia ..... 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza ..... 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia ..... 943 76 14 92
- Erregistroa ..... 943 76 13 15
- Jardun ..... 943 76 36 61
- Idolaz ..... 943 76 65 08
- Erretiratuaren etxea, Bergara ..... 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuaren elk. .... 943 76 62 71
- Postetxea ..... 943 76 26 85
- Bedelkar ..... 943 76 04 68
- Akulu AEK ..... 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia ..... 943 76 44 53
- Bergarako notariotza ..... 943 76 10 73

**MEZAK**

- |  |   |
|--|---|
| <b>San Pedro</b><br>Domekak:<br>09:30,<br>Zapatuak eta<br>lanegunak:<br>19:00. | <b>Labegarieta</b><br>Domekak: 11:00.<br><b>San Lorenzo</b><br>Zapatuak: 20:00.<br><b>Angiozar</b><br>Domekak: 11:00. |
| <b>Santa Marina</b><br>Zapatuak:<br>19:00.<br>Domekak:<br>13:00.               | <b>Moja Zaharrak</b><br>Lanegunak: 08:00.<br><b>Mizpirualde</b><br>Lanegunak: 11:45.<br>Zapatuak: 17:30.              |
| <b>Sierbak</b><br>Lanegunak: 19:30   | <b>Antzuola</b><br>Domekak:<br>10:00, 11:30.<br>Zapatuak eta<br>lanegunak: 19:30.                                     |
| <b>Osintxu</b><br>Domekak: 12:00.  | <b>Uzarraga</b><br>Domekak: 10:00.  |
| <b>Elosu</b><br>Domekak: 11:00.  | <b>Elgeta</b><br>Lanegunak: 09:00.<br>Zapatuak: 19:30.<br>Domekak: 12:00.   |
| <b>Ubera</b><br>Domekak: 10:30.  |   |
| <b>San Juan</b><br>Domekak: 11:00.   |   |
| <b>Elorregi</b><br>Domekak: 10:30.   |   |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**  
Hileko bigarren domekan,  
13:00etan.
- San Pedro**  
Hileko hirugarren domekan,  
09:30ean.

**OHARRAK**

**1948AN JAIOTAKOAK**  
1948an jaiotako bergararren afaria urriaren 2an, Zabala jatetxean. Autobusa izango da jatetxera joateko, 21:00etan Frontoitik.

**PINTURA ETA MARRAZKETA IKASTAROA**  
Beart elkarteak 6-15 urte bitarteko gaztetxoendako pintura eta marrazketa eskolak antolatu ditu. Eskolak zapatuetan izango dira Boluko egoitzan, 10:00etatik 13:00etara. Izenematea 653 71 53 82 (Mayra) edo 665 70 31 57 (Oihana) telefonoetan.

**KILOMETROAK DOMEKAN**  
Domekan, urriaren 3an, Zarautz-Orion ospatuko den Kilometroak jairako autobusa antolatu du Aranzadi Ikastolak. Argibideak: 943 76 90 71.

**XIPIZARO LUDOTEKA**  
Xipizaro ludotekak hasi du ikasturte berria. Izena emateko interesa dutenek Seminarioko lokalean eman dezakete izena, aste barruan 17:00etatik 19:30era. Argibideak: 943 76 23 76.

**JARDUNEN AGENDA**

**TXAPLIGU TALDEA**  
Txapligu taldeak (8-11 urte) ikasturtea hasiko du urriaren 9an. Izenematea Jardunen, Errotalde jauregian.

**TXISKRILABI TALDEA**  
Txiskrilabi taldean parte hartu nahi duten 12-16 urte bitarteko gaztetxoek Jardunen eman dezakete izena. 943 76 08 19.

**JOLASLEKU IBILTARIA**  
Hurrengo egubakoitzean, urriaren 8an, Domingo Irala kalean izango da Jolasleku Ibiltaria, 17:00etatik 19:00etara.

**URBANOEN ORDUTEGIA**

**San Lorenzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Sorluze aurrean), Matxiategi (Mizpildiko indegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegarieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugeriza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTE BERGARAN**

**Zerrajerako artxiboa Udalaren esku geratu zen**

Zerrajerako artxiboa gordetzeko erabakia hartu zuen udalbatzak 1996ko irailaren 26an. 1950. urtea ezkerro Zerrajerako jarduera sozial eta ekonomikoa gordetzen zuen artxiboa desagertzeko arriskuan zegoen. Kapingok Udalari egingo eskaria aztertu ondoren, Udalak gordetzeko erabakia hartu zuen osoko bilkuran.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

“Zirika”



Zirikatzen.  
—Beti elkarri zirika dabitz.

JON IRAEGI

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Domeka, 26	<b>8 °C</b>
<b>MAXIMOA</b> Martitzena, 28	<b>25 °C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>)</b>	<b>4,7 L</b>
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 22	20 °C 14 °C - l/m <sup>2</sup>
Eguena, 23	24 °C 10 °C - l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 24	18 °C 12 °C 2,4 l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 25	19 °C 11 °C - l/m <sup>2</sup>
Domeka, 26	21 °C 8 °C 2,3 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 27	24 °C 11 °C - l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 28	25 °C 11 °C - l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

**ASTEKOPELIKULAK**

**'GARFIELD'**

ZUZENDARIA: PETER HEWITT. AKTOREAK: BRECKIN MEYER, JENNIFER LOVE HEWITT.

**HARIA.** Jarraitzaile ugari ditu Garfield katu gizen eta alferrak mundu osoan. Egun batean, Garfielden nagusiarri neska-lagunak txakur bat oparituko dio, eta etxean gauzak aldatu egingo dira...

**TOKIA ETA ORDUA.** Zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ● ● ● ● ●



**'INTERMISSION'**

ZUZENDARIA: JOHN CROWLEY. AKTOREAK: COLIN FARRELL, KERRY CONDON, JOHNNY THOMPSON.

**HARIA.** Zineklubaren denboraldi berria hasteko, joan zen urteko Zinemaldian aurkeztutako filma. Dublinen girotuta, hainbat galtzaileren istorioak elkar gurtzatuko dira. Colin Farrell aktore ezaguna dugu protagonistetako bat.

**TOKIA ETA ORDUA.** Eguenean, hila ren 7an, 20:00etan. Zinekluba.

PUNTUAZIOA: ● ● ● ● ●



Musika eta liburuak

**bilintx**

Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxa: 943 76 23 52  
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com

## ATREBENTZIAEZPADA/ Obrak direla eta herrian egon diren aldaketek eragin dizute?




**ENEKO PRAT**  
17 urte



**ZORIONE ARREGI**  
36 urte



**ALMUDENA FRANCO**  
36 urte



**JULIANA NUÑEZ**  
43 urte



**JESUS GABILONDO**  
60 urte



**AGUSTIN BARBERO**  
56 urte

Ez, beti oinez ibiltzen naiz eta ez dit askorik eragin. Bideberriko obrak direla eta parkera joateko buelta handiagoa eman behar da orain, baina ez zait axola, ez da hain luzea ere.

Bai, pixka bat bai. Orain ez dago autoz ibiltzerik kale asko itxi egin dituztelako. Lehen ere oinez asko ibiltzen nintzen gehienetan baina orain askozaz gehiago ibiltzen naiz.

Ez, ez naiz autoz ibiltzen eta ez dit eragiten, senarrari bai, ordea. Batzuetan buelta handiagoa eman behar dut oinez baina gero hobeto jarriko dutela pentsatu ez zait axola.

Bai, ni asko ibiltzen naiz oinez, batez ere Martokua alderantz eta oso gaizki dago. Buelta handiagoa eman behar dugu eta gainera kontuz ibili okerreko lekuan ez zapaltzeko.

Bai, obrek denoi eragiten digutela uste dut. Izan ere, buelta gehiago eman behar dira edozein tokitara joateko. Baina egin behar badi- ra ez dago amaitzeko zain egotea beste erremediorik.

Bai, noski eragiten didate- la. Hauts asko harrotzen dute, eta herri guztia ziki- na dago, batez ere etxeeta- ko fatxadak. Bada garaia lan guztiak behingoz amai- tu ditzaten

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK GOIKO ESTAZIOKO EGOERA** Goiko Estazioaren egoera- ren gaineko kexa helarazi digute gazte batzuek. Antza, aspaldian lur mordera utzi dute musika taldeek erabiltzen duten lokalaren inguruan eta ez dakite zein den horren arrazoia. Kontuak kontu, ingurua lurrez beteta dago. Aurretik, harriak ere utzi izan dituzte han. Bestalde, zabo- rra botatzeko inolako edukiontzi ez dagoela salatu dute gazteek. /E.M.

## ETABARRUAN...

ASTEKO / 5

### Artekalea, itxita

Artekalean trafikoa eten egin zuten eguaztenean eta bi hilabete inguruz itxita izango da.

KIROLA / 9

### Eskubaloi liga, abian

Bergara KEko senior mailako bi eskubaloi taldeek aste bukaeran hasiko dute liga.

KULTURA / 12

### Antzerkia aste bukaeran

Asteburuan bi antzerki emanaldi izango dira: *Damas, señoras, mujeres* eta *Pakitarantz bakarrik*.

## ASTEKODATUA

# 35

### LAGUN GABEROREKIN HOLANDARA

Gabero abesbatzak Holandako gazteen abesbatza jaialdia hartuko du parte urriaren amaieran. Jaialdia Veldhoven hirian ospatuko da eta Bergaratik 35 bat lagun joango dira.

## BESTEKEESANA

“ Errepideak izugarri erabiltzen dira, kolapsatzeko zorian daude. Zerbaitetan errepideko profesio- nari egozten dizkiegu saturazioa, mugikortasun handiagoa eta bide segurtasuneko arazoak, baina ez ditugu aztertzen benetako arrazoi sozioekonomikoak: gure eredu ekonomiko neoliberalak eragindako mugikortasun antzua, lurraldearen plangintza nahasia, jabetzaren kulturaren eraginez ibilgailu pribatuei ematen diegun gehiegizko erabilera (jabe izatearen estatusa eta “askatasuna” sustatzen dira eta horregatik bakoitzak bere ibilgailua edpuki eta erabili nahi izaten dugu). Diagnostikoak kontuan izan behar ditu eredu ekonomiko eta lurralde antolamenduaren ereduak”

**ESTEBAN MURUAMENDIARAZ / HIRU garraiolarien sindikatuko idazkari teknikoak 'Argia' / 04-09-26**

## BERAIEKDIÑO / Aitziber Azkondo



*Herriak agintzen du!*

**A**buztuaren 15ean Venezuelako Errepublikak beste herrialde batean inoiz emandako ariketa demokratikoa bizi zuen. Herriak, presidentearen jarraipenaren gaineko erabakia hartu zuen erreferendum baten bidez. Emaizta: herriak Hugo Chavez nahi du.

Ariketa gardena eta biolentziaren kontrako demokraziaren garaipena izan zela esan zuen Bilbon dagoen Venezuelako kontsulak. Nazioarteko begiraleek, Carter Fundazioak edota Ameriketako Estatuak Erakundeak herriaren garaipena zela onartu zuten. Hala ere, baziren iruzurra izan zela oihukatu zutenak, eta emaitzak ikertu behar izan ziren.

Emaizta bera. Chavez garaile. Baina ez pentsa oposizioa konformatu zenik. Han eta hemen ere, "kristonak" entzun genituen Chavez presidentearen kontra. Informatu gabeko eta kultura handi gabeko jendea zela pentsatzera eraman nindu-

ten batzuen adierazpenek. Demokraziaren defendatzaile kontsideratzen diren hauek, komunikabideetan presidentea iraindu egiten dute. Ez dute gehiengoaren erabakia onartzen eta emaitza, herri xehearen ezjakintasunaren ondorioa dela diote. Demokraziaren esanahia gogoratu beharko diegu? Herriak badaki zer nahi duen. Nola ez dute jakingo eurak baitira gehien sufritzen dutenak! Chavez pertsonaia berezia da. Ez du beste presidente batzuekin antzekotasunik. Baina presidente izateko estilo liburua al dago?

Chavez herritik irten den presidentea da eta herriak ulertzeko gobernatzen eta hitz egiten du. Venezuelan ia %100 komunikabide pribatuak direla. Eta hauek, demokrazian egonik, botere militarrek diktadura batean izango lukeen botere kopuru bera ordezkatzten dute. Hala ere, Venezuela, 46 urteko demokraziarekin, heldutasunera iritsi dela dirudi eta heldutako herria izanik, beragan sinistu behar da.

**“Chavez herritik irten den presidentea da eta herriak ulertzeko gobernatzen eta hitz egiten du”**

**Berrigara**

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA  
Edu Mendibil  
ERREDAKZIOA  
Aintzane Irizar  
Irati Agirreazaldegi  
MAKETAZIOA  
Maitena Arana

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga  
KOLABORATZAILEAK  
Luis Mari Agirre  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkorobereizabar

LEGE-GORDAILUA  
SS-50/91  
ISSN  
1130-6599  
TIRADA  
5.900 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala

UDALA/ Bergara Aurrerak azken udal hauteskundeen ondorioz dagokion ordezkariak aldarrikatzen jarraitzen du

# Udalbatza istilutsua, gobernuko eta Bako kideen arteko akusazioen artean

EDU MENDIBIL

Udalbatza istilutsua gertatu zen astelehenekoa. Hasiera baten ez zegoen gai garrantzitsurik aztertze, baina erregu eta galderen txandan, udal gobernuko eta ikusleen artean ziren Bergarako Aurrerako kideen arteko eztabaida eta akusazioak etorri ziren.

Bergara Aurrera taldearen ize-nean, Mikel Eguren hitza eskatu zuen; aurreko ostiralean, irailaren 24an, udalbatza aztertze-ko mozioa aurkeztu zutela eta alkateak aipatutako mozioa batzarrera ez eramatea salatu zuen Eguren. Azken udal hauteskundeen ondorioz, Bergara Aurrerak udalbatzatik kanpo egoten jarraitzen duela adierazi zuen: "2003ko maiatzaren 25ean herritarrek adierazi zutenaren arabera ordezkariak exijitzen dugu, herriaren hitza horixe izan zelako. Herritarren hitza errespetatzeko aukerak sortu dira. LOREGen 182.2 artikulua bidez, ibilbide hori egiteko aukera dago eta hala erakutsi da, 200 herri baino gehiagotan apartheid politikoa gainditu delako. Formula honek borondate politikoa baitan uzten ditu irtenbideak".

Bergara Aurrera taldeak dei egiten zion EAJ, EA, Aralar eta Ezker Batua alderdiei ausardiaz jokatzeko eta LOREGen 182.2 artikulua bidez BARI dagokion hautetsien ordezkariak emateko. Horretarako Iñaki Zabala eta Igor Oiarbide EAJ-EA koalizioa zinegotzietan euren dimisioa aurkezteko eskatu zion Eguren eta, aldi berean, Aralar taldeari, 182.2 artikulua bidezkin jarraitzeko eskatu zion, Aralarrek hartu ez duen hautetsia Bergara Aurreraren eskuetan utzi arte. Bergara Aurrerako kidearen esanetan, "prozedura hau guztia ahalik eta erraz eta azkarren gerta dadin gure esku egon daitezkeen bitartekoak jartzeko konpromisoa hartzen dugu".

## AKUSAZIOAK ELKARRI

Victoriano Gallastegi alkateak zera erantzun zion: "Zuek aipatutako estrategia lantzen ibili gara baina gai hau Eusko Legebiltzarrak arautu beharrekoa da, ez dut uste foru hau egokiena denik. Hala ere, zuen proposamenetako batzuk jasota ditugu eta, esate baterako, batzordeetara etortzerik baduzue. Nik eman gogoz dizuete baimena". Bergara Aurrerako kideek zera erantzun zioten jarraian alkateari: "Gure eta Aralarren proposamenak besterik ez da egon, zuek ez duzue proposamen zehatzik egin, eta borondatea izanez gero, herri mailan konpon daitezke auzi hau".



Bergara Aurrerak dagokion ordezkariak aldarrikatu zituen, eta gaiak alderdien arteko eztabaida luzea piztu zuen astelehenean.

*Bergara Aurrerak dagokion hautetsien ordezkariak izatea aldarrikatu zuten udalbatza*

Alkateak herritarren partaidetarako araudia hor dagoela esan zion, baina BAKoek hori nahikoa ez zela salatu zuten gogor. Eztabaida gogorra izan zuten alkateak eta BAKo ordezkariak. Hamabost bat lagun ziren osoko bilkuren aretoan, udalbatza jarraitzen. Bestalde, Ezker Batuko Andres Diez zinegotzia, PPko Angel Santano eta EAJ-EAKo Juanjo Arriak ez zuten asteleheneko udalbatza parte hartu.

## BLOKEATUTAKO EGOERA

Aralar taldeko Iñigo Iñurrategi zinegotziak gaia aztertu eta bideratuko duen batzorde berezi bat sortzea proposatu zuen, egoera desblokeatzeko aldera: "Azken 16 hilabeteotan ez dugu ezer aurreratu eta konpromisoa eskatzen diegu udal gobernuari eta Bergara Aurrerari batzorde berezi bat osatzeko. Borondate politikoa baldin badago, posible da herritarrek emandako botoen arabera

*Gai hori Eusko Legebiltzarrak arautu beharrekoa dela esan zuten Gallastegi alkateak*

ordezkariaren arabera funtzionatzea udaletan. Eta horrek izan behar du helburua: Estatuak kargurik gabe utzitako hautetsiek udalean dagokien ordezkariak politikoa gauzatu ahal izatea, dagokien erabaki gaitasun, erantzukizun eta baliabidez. Demonstratu da, beraz, borondate politikoa egonez gero, legearen zirkuituak baliatuz posible dela Espainiar legediak ekarritako lege kanporatzea eguneroko jardunean gainditzea".

Iñurrategi zera esan zion Bergara Aurrerako ordezkariak: "Zilegi da zuek eskatutako bidea, konponbiderako aukera bat delako, baina zalantzak ditugu eragingarria izango ote den. Izan ere, Amezketan eta Nafarroako hainbat herritan, esaterako, izan duzue bide hori probatzeko aukera. Amezketan horretan lanean diharduten arren, beste zenbait tokitan ez da aprobetxatu aukera hori bidea eragingarria den

*Auzia aztertu eta bideratuko duen batzorde berezi bat sortzea proposatu zuten Aralarrek*

probatzeko". Iñurrategi eta Egurenen artean eztabaida txiki bat piztu zen orduan eta Eguren esan zuenez, konponbiderako bide bat hartzea da exijitu duten gauza bakarra.

## ARMADA DEBAGOIENEAN

Aurreko astean Espainiako Armadako soldaduek Debagoienean eginiko maniobrek ere polemika piztu zuten. Bergara Aurrera taldeko Jesus Mari Garitanok hitza eskatu zuen, eta espainiar militarren maniobrak behin eta berriz errepikatzen direla salatu zuen: "Heriotza eta zapalkuntza besterik ekarri ez duen Armada gurean izan dugu berriz, eta instituzioen aldetik ez dela ezer egiten ikusten dugu. Arrasaten, herritarren aldetik etorri da erantzun bakarra". Victoriano Gallastegi alkateak maniobren berri ez zuela izan eta komunikabideetatik bakarrik enteratu zirela erantzun zion.

## LABUR

### Bedelkarrek antolatutako jolasparkea gaur

Bedelkar dendarien elkarteak antolatuta, hurrei zuzendutako jolasparkea izango da gaur, egubakoitza, Munibe plazan. Arratsaldean, 16:00etatik 19:00etara puzgarriak eta bestelako jolasak izango dira.

### Jarduneko Jolasleku Ibiltaria Simon Arrietan gaur

Jardun elkartearen eskutik hurrei zuzendutako Jolasleku Ibiltaria Simon Arrieta plazan izango da gaur, egubakoitza, 17:00etatik 19:00etara. Gaztetxoendako jolasak izango dira bertan.

Hurrengo egubakoitzean, hilaren 8an, Domingo Iralan izango da Jolasleku Ibiltaria, 17:00etatik 19:00etara.

### Ekonomi jardueren gaineko zerga ordaintzeko epea

Ekonomi jardueren gaineko zergaren ordainagiriak ordaintzeko borondatezko epea azaroaren 10era arte izango da zabalik. Borondatezko epea amaitu ondoren, errekaragurkin kobratuko da. Ordainagiria helbideratu gabe dituzten zergadunek ondorengo egunetan etxean jasoko dute ordaintzeta egiteko behar den agiria.

### Gipuzkoako odol emaleen jaia urriaren 17an

Gipuzkoako Odol Emaleen Elkartearen 40. urteurrena ospatuko da urriaren 17an Donostian. Herriko 26 odol emale omenduko dituzte. Anoetan izango den jaira joan nahi dutenek 943 76 16 24 telefonoan eman dezakete izena.

Bestalde, eguaztenean, urriaren 6an, odol ateratzea izango da Seminarioan.

### Gurasoei zuzendutako euskara ikastaroa

Gehixago eta hobeto programaren barruan, gurasoei zuzendutako euskara ikastaroa antolatuko du Udaleko Euskara Zerbitzuak. Ahozko euskara izango da ikastaroaren oinarria, gurasoei euren hizkuntza-akatsak zuzentzen laguntzeko. Ordu eta erdiko bost saio izango dira, azaroan hasita. Argibideak 943 77 91 66 telefono zenbakian.

**HIRIGINTZA/** San Martin plazatik Barrenkalea aldera desbideratuko da trafikoa

# Artekalea itxi egin zuten eguaztenean eta pare bat hilabetez zirkulazioa etenda izango da bertan

EDU MENDIBIL

Eguaztenean trafikoa eten egin zuten Artekalean. Bi etxetako teilatuak konpondu behar direla eta, hartu dute kalea itxeko erabakia. Beraz, hurrengo bi hilabeteetan San Martin plazatik Barrenkalea aldera desbideratuko da trafikoa.

Ur zikinen kolektoreko lanek eragindako trabak gutxi balira, aste honetan Artekalean trafikoa eteteko erabakia hartu du Udalak. Artekaleako 6. eta 8. zenbakietan teilatuan konponketa lanak egin behar direla eta, Artekalea itxita dago eguaztenetik. Udaleko iturrien arabera, hasiera baten irailaren hasieran egitekoak ziren lan horiek, baina orduan *Aupa Etxebeste!* filmatzen zirenez, teilatuan egin beharreko lanak atzeratzeko erabakia hartu zuten.

Artekalea itxi duten aurreko aldietan gertatu izan den moduan, San Pedro kaletik Komeniora jo beharko dute gidariek eta ondoren, Bidekurutzetatik gora ala San Martin plazatik behera Barrenkalea amaieraraino. Goenkalea zabalik izango da, baina beharrezkoa ez bada gomendatzen da bide hori ez erabiltzea.

Trafikoari dagokionez, nahaspila ederra dago egunotan herrian. Martitzen iluntzean sekulako auto-ilarak sortu ziren herri barruan eta gidari batek baino gehiagok bere haserrea azaldu zuen. Udaltzaingoak pazientzia eskatu nahi die herritar guztiei.

### EUSKALTEL, ZAIN

Bien bitartean, Euskaltel enpresako zain dago Bidekurutzeta kalen lanean hasteko. Nahaspila areagotzeko, Euskalteleko kableak sartzen hasiko dira laster Bidekurutzetan.



Udaltzaingoak adierazitakoaren arabera, Artekalea pare bat hilabetez itxita izango da.



### Aranzadikoak, 'Física en acción' lehiaketan

Aranzadi Ikastolako ikasle talde bat Granadan izan ziren duela pare bat aste. Ekainaren 8ko Artizarraren eguzki aurreko igarotzea zela eta, web orrialde bat diseinatu zuten eta Granadako Zientzien Parkean jokaturako finalerako sailkatu ziren, Estatuko beste zortzi talderekin batera. Saria irabazi ez arren, primeran pasa zuten Andaluzia aldean. Argazkian, Garoa Berrueta, Manu Arregi irakaslea, Markel Eguren, Jone Muruamendaraz eta Eneritz Madariaga.

## Akulu AEK euskaltegiak ikasturte berrirako eskaintza aurkeztu du

GOIENA

Indartuta eta berrituta dator Bergarako Akulu AEK euskaltegia. Hala adierazi zuten bertako irakasleek martitzenean, komunikabideen aurrean. Irene Murgiondo, Amagoia Aristegi eta Ibai Redondo irakasleek azalduzakoaren arabera, Akulu AEK euskaltegirako bidea hartzen duenak, aniztasuna sumatuko duela ere azaldu dute irakasleek, matrikula egin dutenen artean herrialde ezberdinetako jendea baitago. Ikasle kopuruak gora egin duela esan zuten AEK-ko irakasleek.



Ibai Redondo, Amagoia Aristegi eta Ibai Redondo, martitzeneko prentsaurrekoan.

### EUSKARA MAILA HOBETU

Berrikuntzen artean, herrian erabiltzen den euskara maila hobetzeko helburuarekin ikastaro bereziak izango dira; kultura,

aisialdi edota kirol elkarteetara jo nahi da, haien karteletan eta oharretan erabiltzen den euskara zuzenagoa izan dadin.

Eskolak astelehenean, urriaren 4an hasiko dira eta interesatuek 943 76 05 18 telefonora jo dezakete argibide eske.

**CAMACHO**  
Drogeria  
Usaindegia

Bidekurutzeta 24  
BERGARA  
943 76 13 35

PINTXOAK eta  
OGITARTEKOAK  
SEKULAKO MARTXA!!

**EUXEBIO II**

Irala z/g  
Bergara  
943 76 07 92

**GURIA**  
Taberna

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
943 76 20 34

**ORRASKI**  
ile apaindegia

**ORDUTEGI BERRIA**

- Asteartetik ostegunera 9:00etatik 16:00etara
- Ostirategian 9:00etatik 19:00etara
- Larunbatetan 8:00etatik 14:00etara

San Pedro 6 - Tel.: 943 76 47 01

**HIRIGINTZA/** Ariznoa plazan arbola bakarra eta bi eserleku bakarrik izango dira

# Epaitegi aurreko plaza berriko lanak, eztabaidagai

E.M.

Bergarako epaitegia zaharberritzeko lanek aurrera jarraitzen dute. Asteleheneko udalbatzan eztabaidarako gaia izan zen epaitegi aurrean egiten dihardute plaza. Ariznoako plaza berriak arbola bakarra eta bi eserleku izango ditu etorkizunean.

Jaurlaritzako Justiziaren Sailaren aginduz egiten dihardute Bergarako epaitegia zaharberritzeko lanak. Lanak hasiera baten pentsatutako baino gehiago luzatzen ari dira. Zaharberritze proiektua Enrique Ibañez arkitektoak eginikoa da eta aurrekontua 293.000 euro da. Abuztuan, Ikerketa Historiko-Arkeologikoen Arkeolan Zentroko kideek Magdalena ospitalea zenaren aztarnak (XV. mendearen ingurukoak) aurkitu zituzten epaitegi aurreko lorategietan.


Epaitegi aurreko plaza berritzeko lanetan dihardute orain. Asteleheneko udalbatzan, Bergara Aurrera taldeko Jesus Mari Garitanok zelako plaza mota egingo zuten galdetu zuen, bota dituzten arbolak eta kendu dituzten



Epaitegi aurreko plaza urbanizatzeko lanetan dihardute egunotan.

eserlekuak berriro jarriko ote dituzten zalantza zuen-eta. Jose Antonio Etxeberría Hirigintza batzordeburuaren arabera, arbola bakarra eta bi banku besterik ez dira jasotzen Jaurlaritzako Justizia Sailak egindako proiektu-


tuan. Era berean, epaitegiaren sarreran aurrean eta eraikin osaren luzeran, hesi txiki batez inguratuta, terraza moduko bat egingo dute, sarrerako eskaileren mailara. Ezinduendako sarrera San Pedro aldetik jarriko dute.



## Udal gobernuak pintaden salaketa egin du

Alkatearen proposamenari jarraituz, udal gobernuak aste bukaeran herrian azaldutako pintadak salatu zituen asteleheneko batzordean. Onartutako testuan jasotzen denez, "pintaden egileek eta ekintza hauen bultzatzaileek jakin beharko lukete gure ondarea eta gure herria zaindu eta zabalitzen dutenei kalte handia egiten dietela. Pintaden egileek lortzen duten gauza bakarra gure ondarea kaltetzea da. Bergararen eta gure herritarren onerako, egileek ekintza hauen gainean erreflexionatu egin beharko lukete, euren jarrera aldatuz".

# ARREGI AROZTEGIA



PVCzko  
LEIHOAK




Zatoz gure  
erakusketa handitu  
eta berritura.  
Bidekurutzeta  
38an gaude.

HORMA ARMAIRUAK

SUKALDEAK

ATEAK ETA  
LEIHOAK



BAITA ERE: Tarimak, parketak • Gradulux pertsiana eta kortina graduagarriak • Flex koltxoak • Mota guztietako arozlanak

Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03

# BOLU SUKALDEAK



2000 eguneko garantia.  
Aurrekontua konpromiso gabe.

Bolu 22 -behea . Bergara . Telefonoa eta faxa: 943 76 27 02

# ELKAR ELEKTRAGINTZA

**ZURE  
ZERBITZURA!!**

## Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.  
**BERGARA**

## ELKARRIZKETA

UNAI ARANTZABAL/LOKATZA-SUMOFIC TALDEKO TXIRRINDULARIA

*“Gogor entrenatu naiz, baina ez nuen espero horrelako emaitzak lortzea aurten”*

EDU MENDIBIL

**D**enboraldi borobila egin du Unai Arantzabalek. Domekan, Aretxabaletan, bosgarren garaipena lortu zuen, hamar kilometroko erlojupeko proban. Gipuzkoako Txapelketa ere eskuratu zuen udaberrian, Itsasondon.

**Domekako garaipenarekin, ezin hobeto bukatu duzu denboraldia, ala?**

Bai, Udazkeneko Kriteriuma jokatu dugu aste bukaeran, zapatuan Urnietan eta domekan Aretxabaletan. Zapatukoan ez nuen zorterik izan eta ez nintzen ihesaldi onean sartu; domekan, berriz, bi proba genituen: goizean, 56 kilometroko lasterketa, eta arratsaldean hamar kilometroko erlojupekoa. Goizean lasai ibili nintzen, arratsalderako indarrak gordez. Eta gauzak ondo atera zitzaizkidan. Erlojupekoak gustuko ditut eta gustura ibili nintzen domekan. Denboraldia ezin hobeto joan da eta oso pozik nago lortutakoarekin.

**Zein proba irabazteak egin dizu ilusio handien?**

Denak izan dira garrantzitsuak: Azpeitikoa lehenbizikoa izan zelako, Segurakoa, Gipuzkoako Txapelketakoa, Lierniko proba eta azken hau. Hala ere, iaztik markatuta neukan egutegian Gipuzkoako erlojupeko txapelketa. Joan zen urtean bosgarren izan nintzen eta aurten baneukan irabazteko ilusioa. Haren ondoren, Euskadiko erlojupeko txapelketan bigarren izan nintzen Izarran, eta balio handia ematen diot han lortutakoari.

**Denboraldi hasieran horren ondo ibiltzea espero zenuen?**

Ez. Gogor entrenatu naiz, baina horrelako emaitzak ez nituen espero, garaipenak lortzea oso



*“Garaipen guztiak dira garrantzitsuak, baina Gipuzkoako Txapelketa lortzea berezia izan zen”*

zaila izaten delako. Gainera, denboraldi osoan orekari eutsi diot, eta ez dut izan gorabehera handirik sasoi puntuari dagokionez.

*“Txikitatik gustatu izan zaizkit erlojupeko probak. Sufritzen jakin beharra dago hor”*

**Zein da erlojupekoetan ondo biltzeko sekretua?**

Sufritzen jakitea. Burua da inportanteena, eta indarrak ondo

neurtu behar dira. Niri txikitatik gustatu izan zaizkit erlojupekoak. Zulle eta Olano asko jarraitzen nituen, eta erlojupekoetan ondo ibiltzen ziren haiek. Gainera, hain bizikleta ikusgarriak erabiltzen zituzenez, oso proba erakargarria gertatzen zitzaidan.

**Datorren urtean, amateur mailan lehiatuko zara. Eskaintzarik ez zitzaizun faltako, ala?**

Izan dut bat baino gehiago, bai. Azkenean, Lizarralde-Aldekoa taldean korritzea erabaki dut. Mikel Lizarralde ezaguna da, eta gainera etxe ondoan korritu ahal izatea ere kontuan hartzea da. Eugenio Goikoetxea izango da gure zuzendaria. Badakit zaila izango dela amateur mailan aurten lortutako emaitzei eustea: ibilbide luzeagoak izaten dira, erritmoa ere biziagoa, lehiakortasun handia... Jauzi handia da, eta ondo mentalizatu beharra dago amateurekin korritzeko.

**Orain, atsedean hartuko duzu, baina.**

Bai, hilabete inguruko atsedena izango dut, eta horren ondoren hurrengo denboraldia gertatzen hasiko naiz. Normalean Jose Luis Fernandezek agintzen dizkit entrenamenduak. Orain, pixka bat deskonektatzeko eta lagunekin parrandaxo bat edo beste egiteko aprobetxatuko dut.

**Aurten, zenbat kilometro egin dituzu?**

Ez ditut zenbatu, baina 10.000tik gora izango ziren.

**Espainiako Itzulia jarraitu duzu? Zein iritzi?**

Ez dut gehiegi jarraitu baina irailerako ikusten da jendea oso erretea dagoela. Ez nau harritu Roberto Herasek irabaztea, hiru asteetan bera izan delako erregularrarena.

## LABUR

**Patinaje ikastaroa urriaren 16tik aurrera, Zabalotegin**

Kirol Zerbitzuak patinaje ikastaroa antolatu du, urriaren 16tik abenduaren 4ra bitartean, Zabalotegiko pilotalekuan. Eskolak larunbatetan izango dira, 10:00etatik 11:30era (has-tapen maila) eta 11:30etik 13:00etara (hobekuntza maila). Kirol Zerbitzuko bazkideendako 20 euro eta 24 gainerakoendako. Izenematea Kirol Zerbitzuan, urriaren 14ra arte.

**Kadete mailako nesken saskibalo partidua bihar**

Bergara KEko kadete mailako nesken saskibalo taldeak Bera Bera Zurriola taldearen aurka jokatuko du bihar, zapatua, Mariaren Lagundian, 16:00etan. Aurreko jardunaldian bergararrek 32-61 irabazi zioten Atletico San Sebastian taldeari, Donostian.

Kadete mailako mutilek, berriz, 53-48 irabazi zioten Cafes Aitonari, Bergaran. Antxon Hernandezek 32 puntu lortu zituen.

**Gutxituei zuzendutako igeriketa ikastaroa**

Kirol Zerbitzuak igeriketa egokituko ikastaroa eskaintzen du. Aipatutako ikastaroa gutxituei zuzendutakoa da eta aurreko urteotan moduan, maila ezberdinak izango dira. Era berean, gaztetxoek zein helduek eman dezakete izena.

Bergaran eskolako egubakoitzetan izango dira, arratsaldean, hilaren 8tik aurrera. Minusbaliotasun mailaren arabera, ordutegi ezberdinak izango dira. Interesatuak 943 77 91 67 telefono zenbakira dei dezakete argibide eske.

**Bergara Urolari irabazi beharrean bihar, Agorrosinen**

E.M.

Hasiera txarra izan du Bergara KEko preferente mailako futbol taldeak ligan. Igor Gordobil eta Andoni Azkargortak zuzentzen duten taldeak ez du oraindik partidurik irabazi eta sailkapeneko azken tokian dago, puntu bakar batekin. Gauzak horrela, bihar-ko partidua oso garrantzitsua da. Mahoneroek Urola taldearen bisita izango dute zapatuan Agorro-

sinen, 16:30ean. Hiru puntuak etxean geratzea da helburu bakarra. Andoni Azkargortak zera adierazi digu: “Badirudi kosta egiten ari zaigula sistema berria bereganatzea. Orion, 20 bat minutuan ondo jokatu genuen, baina gero desagertu egin ginen zelatik. Defendatzeko orduan zulo asko laga genituen eta oriotarrek erraz jokatu zuten”. Oriokok 3-1 irabazi zion Bergarari zapatuan. Aitor Berraondo eta Oier Loio-

la baja dira biharko. Mikel Oterok ere ezin izango du jokatu, Orion txartel gorria atera zioten-eta.

**HIRU PARTIDU IPINTZAN**

Zapatuan beste hiru partidu jokatuko dira Ipintzan: Bergara-Ikasberri (2. mailako kadeteak, 10:00etan); Bergara-Santo Tomas Lizeoa (ohorezko mailako kadeteak, 12:00etan) eta Bergara-Urki (senior mailako neskek, 19:00etan).



Preferente mailako taldeak ez du oraindik partidurik irabazi ligan.

ASTELEHENKO GOENKARIA





Argazkian, lehen senior mailako Bergara KEko taldea.

JOSETXO MUNIATEGI

ESKUBALOIA

## Senior mailako taldeak Urdulizen aurka hasiko du liga zapatuan

Lander Juaristik zuzendutako taldeak hiru fitxaketa egin ditu

E.M.

Bergara KEko lehen senior mailako taldeak Urdulizen aurka jokatu du bihar, zapatua, Labegarrietako kiroldegian, 16:00etan. Hainbat nobedade dira Lander Juaristiren taldean.

Lander Juaristik Ekain Sotil eta Ibai Kareagaren laguntza izango du taldea gidatzeko. Esan bezala, hainbat nobedade dira joan zen denboraldiarekiko: Ekain Sotil berarekin batera, Aloña Mendi taldera joandako

Garikoitz Arregik eta Aitor Sanchezek eta Iban Orgazek taldea utzi dute. Baja horiek betetzeko Ermutik Peio atezaina eta Javi hegalaria eta Legazpitik Iban hegalaria etorri dira.

**MAILARI EUTSI**

Euskadiko Txapelketan lehiatuko da lehen senior mailako bikotea. Helburua mailari eustea izango da. Jokalariak neurria hartzen badiote lehiaketari, hurrengo urterako talde sendoa izan dezake Bergarak. Zapatuan, hasteko, Urduliz talde bizkaitarraren bisita izango dute.

**BIGARREN TALDEA, ELGOIBARREN**

Bestalde, bigarren senior mailako taldeak Elgoibarren jokatu du ligako lehenbiziko partidua, domekan, 11:30ean. Gipuzkoako Txapelketan lehiatuko da Josetxo Muniategiren taldea. Bederatzi talde arituko dira nor baino nor.

**GAZTE MAILAKO NESKAK**

Gazte mailako nesken taldeak, berriz, lagunarteko partidua izango du zapatuan Labegarrietan, 16:00etan. Ibai Otxoak eta Ander Alvarezek zuzentzen duten taldeak beste bi taldek hiruko txapelketa jokatu dute.

## Gipuzkoako Txapelketako bi partidu bihar Udal Pilotalekuan

E.M.

Gipuzkoako Txapelketarekin jarraituz, bi partidu izango dira bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan, 19:00etan hasita. Aurretik, 18:30ean, kadete mailako Gabon Sariko partidu bat izango da.

Kadete mailan, Gabon Saria bihar jarriko da abian. Zortzi bat gaztetxo arituko dira lehia maila horretan. Datozen asteotan beste mailak lehen partiduak jokatu dira.


**GAZTE ETA SENIOR MAILAK**

Gabon Sariko partiduaren ostean, Gipuzkoako Txapelketaren txanda izango da zapatuan. Bi partidu jokatu dira 19:00etan hasi-

ta: gazte mailan, Eneko Muguruzak eta Xabi Azurmendik Elgoibarko Lagunak taldeko bikotearen aurka neurtuko dituzte indarrak. Ondoren, lehen senior mailan, Ander Muruguzak eta Igor Gutierrezek Aurrera Sayazeko bikotea izango dute aurrez aurre.

Aurreko asteburuan, Muguruzak eta Gutierrezek 6-22 irabazi zuten Amezketan; Eneko Muguruzak eta Markel Aldaik Hernanin galdu zuten eta, kadete mailan, Ibon Berraondok eta Beñat Etxezarretak 22-12 galdu zuten Añorgan.

Bergaran, Joseba Herranek 22-8 irabazi zion Bearzan billabonatarrari eta Igor Apraizek eta Beñat Inarrak Intxaurrendoko bikotearen aurka galdu zuten, 8-22.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Kadete, gazte eta senior mailak partiduak izango dira zapatuan.

## Bergara Igeri Elkarteko gaztetxoak, Kontxako Badiako zeharkaldian

E.M.

Bergara Igeri Elkarteko gaztetxoek parte hartu zuten joan den irailaren 19an Kontxako Badiako zeharkaldian, Donostian. Infantil mailan, nesken artean, Elisa Kortabarria 28.a izan zen, Irati Fernandez 35.a, Miren Fernandez 53.a, Leire Aperribai 54.a eta Amaia Azpeitia 55. tokian sailkatu zen. Mutilei dagokienez, Nielka Iburguren izan zen herriko onena, Mikel Labaka, Jon Muxika, Urki Iburguren eta Xabier Labakaren aurretik. Gaztetxoek 600 metro inguruko distantzia bete behar izan zuten.

Absolutu mailan, berriz, 2.300 m-ko distantzian, Neritzel Albisua 27. tokian sailkatu zen Donostian. Neritzel bera eta infantil mailan lehiatu diren Ana Balentziaga, Mikel Labaka eta Nielka Iburguren onenen artean izan ditugu udan jokatu-tako zeharkaldietan.



AMAIA ANDUEZA

Argazkian, Leire Aperribai eta Jon Muxika, partaide gaztetxoenen trofeoekin.

### LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

#### ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

**DOMEKAN, BARRUAN**

- 09:30: Canalejas-Txipiron. Ganbara
- 10:30: Ganbara-Egurre. Errotagain
- 11:30: Cosa Nostra-Errotagain. Fit Auto.
- 12:30: Fit Automocion-Brescia. Cosa Nos.
- 16:00: SDTNT-Niu Tim. Irubide

**17:00: Irubide-De Resaka. KMP**

- 18:00: Fac-KMP. Arrano
- 19:00: Arrano-Pagomendi. Pirulotarrak
- 20:00: Pirulotarrak-Belengua. Pagomendi
- DOMEKAN, KANPOAN**
- 18:00: PDS-All Blacks. De Resaka

### Marrazketa eta pintura eskolak

M<sup>a</sup> Paz (irakaslea)  
Zubieta • Tel.: 943 76 17 32



**NAGUSIAK:**

Eguna: Astearte eta ostegunetan  
Ordua: 18:30-20:00

**GAZTEAK:**

Eguna: Astelehen eta asteazkenetan  
Ordua: 18:30-20:00




Sinpletasunaren xarma.  
Txikitasunean handi.

Ibargarai 36-38 BERGARA. Tel./faxa: 943 76 70 58

## ZABALA OPTIKA

Iñigo Zabala *Optiko Optometrista*

- GRADUAZIOA
- UKIPEN-LENTEAK
- BEGIETAKO TENTSIOA
- AUDIOMETRIA



Amaia eta Iñigo Zabala

**Eskaintza berezia!**  
armazoia + lente pareta

**58€**

Eguzkitarako betaurrekoetan  
deskontua!





Gehiago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 35. alia

## IEPA LAGUNOK!

Ailegau da berriz be eguakitza! Ez daki-zue zenbat gustatzen jaten asteko egun hau! Zergaittik? Zuekin astero-astero tarte bat pasatzen dotelako. Gaurko alian lehia-ketan parte hartzeko aukeria izango dozue. Gogoratu erantzun orrixak martitzen goizerako zuen ikastetxeko idazkari-tzara eruan bihar dittuzuela.



## URREZKO ARAUAK

- Zuhaitz horren atzian ikusi be ez zaittut egiten!
- Gaur ni juango naiz, ze bestela hasarretu egingo zara.
- Gaur ni juango naiz, bestela hasarretu egingo zara eta.
- Si ez zaittut ikusten-zuhaitz horren atzian.
- Gaur ni juango naiz porke bestela hasarretuko zara.



## LOTU BIKOTIAK

- A. Zuhaitz horren atzian ikusi be ez zaittut egiten!
- B. Zergatik zabaldu dozu ater kiña? Eguzkixa irten da eta!
- D. la hurrengo urtian be horrela ko erregalua ekartzen dozun!

- E. Ezetz jakin zenbat amorrain daren errekan!
- F. Gaur zuek egin erosketak, ze ez dot edukiko medikuaren gana juateko denborarik.
- G. Senidiak etorri direnez, bazkari eder bat egin geinke.



## JOLASA

la asmatzen dozuen zein dan fruta bakoitzaren balixua!!



	:		=	
-		X		X
	:		=	
=		=		=
	+		=	

**MUSIKA/** David Azurtzak zuzentzen duen Gabero abesbatza munduko hainbat korurekin izango da lehian

## Holandako gazteen abesbatza jaialdian hartuko du parte Gaberok urri amaieran

IRATI AGIRREAZALDEGI

Gabero abesbatzako 30 lagun inguruk Holandara egingo du bidaia urriaren amaieran, Veldhoven hiriko gazteen abesbatza lehiaketan parte hartzeko. Munduko hainbat herrialdetatik joandako 22 abesbatza izango dira bertan kantari.

Holanda hegoaldean, Eindhoven hiritik gertu dago Veldhoven hiria, eta Gabero abesbatzakoek bertara egingo dute bidaia urriaren amaieran.

Izan ere, urriaren 22an, 23an eta 24an Nazioarteko Gazte Abesbatzen Jaialdia egingo dute bertan, eta 30-35 bergararrek hartuko dute parte lehiaketan.

David Azurtzak zuzenduko du Bergarako abesbatza, eta berak esan digunez, "gazteen abesbatzandako ez da apenas lehiaketarik egoten. Umeen mailan ezin gara lehiatu. Helduenean, berriz, aurkarien mailaren azpitik egoten gara gehienetan lehiaketetan. Beraz, Holandakoa aukera polita da gure mailakoekin lehiatzeko, eta horregatik animatu gara parte hartzera".

### MUNDUKO ABESBATZAK

Azurtzaren esanetan, lehiaketa horren planteamendua nahiko berezia da. "Ez dago diru saririk eta epaimahaikoek abesbatzaren balorazioa egiten dute. Beraz, bat baino gehiago izan daiteke azkenean irabazlea".

Epaimahaikoek erritmoa, ahoskera, espresioa, interpretazioa eta soinua hartuko dituzte kontuan besteak beste. Puntuazioa eman ostean, talde bakoitzak nota bat jasoko du, eta horrela era-



David Azurtzak zuzenduko du Gabero abesbatza, eta besteak beste, berak konposatutako abesti bat kantatuko dute.

bakiko da lehiaketako azken sailkapena nola geratu den.

"Ez dugu jardungo gainontzeko abesbatzen aurka, gure buruaren kontra baizik. Helburua ahalik eta maila onena ematea da eta epaileek gure lanaren balorazio ona egitea", esan digu Azurtzak.

Nazioarteko lehiaketa izanik, munduko hainbat txokotatik joango dira gazteak Veldhovenera. Bergararrek batera, Katalunia, Txekiar Errepublikak, Danimarka, Estonia, Finlandia, Hungaria, Letonia, Lituania, Errumania eta Holandakoek bertakoek hartuko dute parte.

### Hiru abesti eskaini beharko dituzte Gaberokoek epaimahaikoekin aurrean

Abesbatza bakoitzak hiru abesti eskaini beharko ditu 15 minutu inguruko saio batean.

Lehenengo kantua ezarriak berotzeko izango da, eta gainon-

tzeko biak, berriz, epaimahaiko kideek abesbatzaren lana neurtu ahal izateko.

Abestien aukeraketa librea izatea ere positiboa da Azurtzaren ustez. Gaberokoek honako hiru kantua abestuko dituzte: Jose Maria Gonzalez Bastidaren *Saratarra*; Dante Andreoren musika eta Garcia Lorcaren hitzak dituen *Balada de los tres rios* eta hirugarrenik David Azurtza beraren *Tirikitauki*. Azken abesti horrek folklorean oinarritutako hiru kantu ditu bere baitan, eta abesteaz gain, antzeppen txiki bat ere egingo dute Gaberokoek.

## Bi antzezlan izango dira asteburuan Novedadesen eta Zabalotegin

I.A.

Asteburuan bi lan ikusteko aukera izango dute antzerkizaleek Bergaran. Lehenengo gaur, egubakoitza, Novedades aretoan Itziar Ituñoren eskutik. Bestea, bihar, zapatua, Zabalotegin, Ispilu taldeak eskainita.

Ernesto Caballero antzerkigileak gertatu eta zuzendutako *Pakitarentzat bakarrik* lana ikusiko dute gaur gauean Novedades aretoan gerturatzen direnek. Emanaldia 22:30ean hasiko da eta ordubete inguru iraungo du.

Itziar Ituño izango da taula gainean agertuko den aktorea. Euskal antzezle onenari ematen

zaion Jokulari saria jaso zuen 2001ean, eta *Palabrismos* lanarengatik Rosa Agirre saria 1995ean. *Goenkale* saioan ere ikusi dugu ertzainaren paperean.

Talde terapia batean ari den neska baten istorioa kontatzen du antzezlan horrek. Maitasun kontuak ez zaizkio ongi atera Pakitari eta gainera menpekotasun asko ditu, besteak beste kafe asko hartzea. Horien berri emango du berak jendearekin berba eginez.

### ISPILU TALDEA

Bestalde, zapatuan, 19:30ean, Donostiako Zuloaga ikastetxeko helduen heziketa taldeko Ispilu antzerki talde amateurrak Juan Jose Alonso Millanen *Damas,*

*señoras, mujeres* lana antzeztuko du Zabalotegi aretoan.

Orain dela gutxi izan ziren Bergaran talde horretako beste hainbat kide egile beraren beste obra batekin.

Beste zortzi emakumek Yolanda Guillen zuzendari bergararraren esanetara jardungo dute oraingoan.

Marbellan *jet-set*-eko jendea elkartzen den diskoteka batean gertatuko da antzezlanoen istorioa. Hainbat emakumek modu arraroan hil den euren senargai ohi baten heriotzaren kontura aberastu nahiko dute.

Beraz, bi antzerki emanaldi izango dituzte aukeran zaleek asteburuan.



Itziar Ituñok *Pakitarentzat bakarrik* lana antzeztuko du Novedadesen

### KULTURAPILULAK

#### Helduen bertso eskola urriaren 6an jarriko da abian

Datorren urriaren 6an jarriko da abian Jardun elkartearen baitan dagoen helduen bertso eskola. Ordutik aurrera eguaztenetan 20:00etan elkartuko dira Harrizuriagan. Txikien taldekoek, berriz, eguaztenetan izango dute bertso eskola, 18:00etan, urriaren 7an hasita. Bertso eskolan izena eman nahi dutenek aipatutako orduan bertara joan edo Jardun elkartera dei dezakete: 943 76 36 61.

#### Ehungintzari buruzko hitzaldia martitzenean

Bergara, historia topagunian hitzaldi sortaren baitan, Jose Antonio Azpiatzuk ehungintzari buruz hitz egingo du martitzenean, urriaren 5ean, 19:30ean, Migel Altuna ikastetxeko areto nagusian. *Bergararrak lihoz janzen ziren garaiko historia* izenburuan emango du hitzaldia Azpiatzuk eta Bergaran tradizio handikoa den ehungintzari buruz jardungo du.

#### Punk oi! kontzertua gaur gauean gaztetxean

Gaur, egubakoitza, urriak 1, kontzertua izango da gaztetxean 22:30ean. Azpitiko Pata-dazo eta Semeputiek taldeek punk oi! musika eskainiko dute. Bestalde, kalamu taletarrak egingo dituzte gaztetxean Errotatxo kolektiboaren eskutik, esperientziak trukatzeko. Parte hartu nahi dutenek gaztetxean bertan eman behar dute izena.

**ZAHARRAK BERRI/** Hiru informatika ikastaro izango dira urritik azarora bitartean, eta bestelako ikastaroak ere eskainiko dituzte

# Datorren astelehenean, urriak 5, hasiko dira informatika ikastaroak San Joxepen

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Ikasturte berriarekin abian jarri dira San Joxepe elkartearen ohiko ekintzak eta ikastaroak: eskulanak, yoga, gimnasia, abesbatza eta pintura. Horietan jarduteaz gain, nagusiek informatika ikasteko aukera ere izango dute urriaren 5ean hasiko diren ikastaroetan.**


netan izango dira 17:00etatik 19:00etara, eta azaroaren 23ra arte izango da. Bi ikastaroak martitzenean, urriaren 5ean, hasiko dira. Power Point programaren gaineko ikastaroa egunean, urriaren 7an, hasi eta azken saioa azaroaren 18an izango da. Ikastaroetarako izena eman nahi dutenek 943 76 30 09 telefonora dei dezakete edo San Joxepe elkartera jo.

### BESTE IKASTARO BATZUK

Bestalde, udako etenaren ostean, berriz ere abian dira urte guztian zehar nagusiek San Joxepe elkartearen aukeran izaten dituzten ikastaroak eta ekintzak.

Eskulanak egiteko astelehenean elkartzen dira 17:00etatik 20:00etara. Yoga egiten dutenak astelehen eta eguaztenetan 11:00etatik 12:30era. Gimnasiako taldekoek astelehenean egunero bitartean egunero izaten dituzte eskolak 10:00etatik 11:00etara.

Abesbatzakoek martitzen arratsaldeetan egiten dituzte entseguak 17:30etik 18:45era. Pintura eskolak, berriz, egubakoitzetan 15:00etatik 19:00etara izaten dira.



San Joxepeko informatika gelan izango dira ikastaroak urritik azarora bitartean.

ARTXIBOA



### Covarrubiasen 100 lagun izan ziren

Bidaiari dabilta azkenaldian Bergarako erretiratuak. Uztailean, eguraldi ona aprobetxatuz, Burgosko Covarrubias herrira egin zuten irteera 100 lagun inguruk. Erdi Aroko itxura ondo gordetzen du Gaztelako herri horrek, eta bergararrek herriko hainbat txoko bisitatu zituzten; elizak, besteak beste. Horren ondoren, argazkian ikus daitekeen moduan, bapo bazkaldu zuten Covarrubiasen bertan. Bestalde, irailean beste 105 lagunek Galiziarra egin zuten bidaiaria.

### LABUR

### Urbiara mendi irteera antolatu dute urriaren 7rako

Mendi irteera antolatu dute urriaren 7rako, eguena. Erretiratuak 09:15ean autobus geltokian elkartu eta Arantzazura joango dira, handik Urbiara abiatzeko; buelta, berriz, 18:30ean izango da. Erretiratuak bertan bazkaltzeko aukera izango dute. Babarrunak, oilaskoa eta gazta. Gainera, joaten direnen artean hiruzazko zozketatuko dituzte. Urbiara joan nahi dutenek 21 euro ordaindu beharko dituzte, urriaren 4a baino lehen, Euskadiko Kutxan.

**OILAGORRA  
TABERNA**  
Barrenkalea 21 BERGARA

**¡AHA!**

Antzuolako Hizkuntza Akademia  
zabaldu berria ANTZUOLAN

ZATOZ ALEMANA IKASTERA!

Irakasle tituluak

Kalegoi 20  
Tel.: 943 75 21 11 • 649 318 385

**BEHEKO  
TABERNA**

Menestra  
eta untxia dira  
gure berezitasunak

ANGIOZAR  
Tel.: 943 76 55 74



943 76 20 61  
BERGARA

**Mujika**  
gozotegia



Bizkotxoak  
Erreilenoak  
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA  
943 76 10 34

BONOFOTOA




MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Begarako hiru eliza eta erdialdeko etxe bat monumentu nazional izendatu zituzten. Zeintzuk?

GALDEDEBALDE

- |   |   |   |
|---|---|---|
| <p><b>1.</b><br/>Begarako zein kaletan eten egin dute trafikoa aste honetan?</p> <p>A/ Bidekurutzeta.<br/>B/ Barrenkalea.<br/>C/ Artekalea.</p> | <p><b>2.</b><br/>Zein taldetan arituko da Unai Arantzabal txirrindularia hurrengo denboraldian?</p> <p>A/ Ulma-Cegasa.<br/>B/ Lizarralde-Aldekoa.<br/>C/ Debabarrena.</p> | <p><b>3.</b><br/>Holandako zein hiritan egingo du emanaldia Gaberok urriaren amaieran?</p> <p>A/ Utrecht.<br/>B/ Veldhoven.<br/>C/ Eindhoven.</p> |
|---|---|---|



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzailen artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JON GARITANOrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Jon!  
Galderen erantzunak: Bonofotoa: Masterrekan / Galde debalde: 1-B, 2-A, 3-B.



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Mendisol ekilore-olioa

Litro bat.

**0,78€**

130 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ARCADIOLARA

BERGARAROSPETSUAK

Gabriel Mendizabal (1)

KOLDO PEREIRA

Mendizabal Jeneralak Bergaran jaio zen 1764. urtean. Herritik sortutako soldadua zen Gabriel Mendizabal, eta bere ausardi eta sen militarri esker iritsi zen karrera militarren gailurrera, eta kondekorazio ugari jaso zituen. 1798. urtean Gipuzkoako boluntarioen batailoiko komandante eta sarjentu nagusi izendatu zuten.

1794an Irunen jasandako porrotaren ondoren, lehen komandante izendatu eta Gipuzkoa barrualdera bidali zuten, Aparteko Biltzarren aginduz. Ordura arteko merituak aitortzeko armada nazionalera bidali zuten, graduazio berarekin. 1809an Mariskal izendatu zuten, eta urte hartan bertan zur eta lur utzi zituen guztiak Salamancako probintzian izandako borrokaldian, frantziarren zalditeria handiari aurre egitea lortu baitzuen hirutan. Balentria haren ondorioz, Alba de Tormesko Gudarosteko Konde izendatu zuten.

1810ean teniente jeneral izendatu zuten, eta Espainiako Independentzia Gerran garrantzi handiko ardurak eta karguak eman zizkioten Mendizabali.

*Bere ausardi eta sen militarri esker karrera militarren gailurrera iritsi zen*

MARRAZKETA  
ETA PINTURA ESKOLAK

Edurne Eraña

Harrizuri 5-1C  
Tel.: 943 76 40 14  
Poltsikokoa: 651 742 154

**ANIMA ZAITEZ!**



Dixula

BOKATAK  
DAUZKAGU

Barrenkalea 32  
BERGARA  
Tel.: 943 76 44 95

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

MUJIK FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

# 'Hankaluzien' koadrila, Santionean

Honako argazkian azaltzen direnak *Hankaluzien* koadrilakoak dira; badirudi garai baten lagun koadrila bakoitzak bere izena zuela, eta honako hauek *Hankaluziak* ziren. 1965. urte inguruan ateratakoa da gaurkoan dakarkizuegun argazkia.

Astebururo elkartzen zen koadrila hau Santionean, kafea hartu eta tertulian egoteko, eta horrelaxe ikusten ditugu Antzuolako taberna horretako txoko baten.

Santiona taberna historikoa da antzuolarrendako; zenbat kontu entzun ote dituzte hango hormek, zenbat istorio bizi ote dituzte. Azkeneko urteotan, baina, itxita dago, bai taberna, bai jatetxea.

*Hankaluzien* koadrilakoek, nahiz eta urte asko igaro diren, harreman handia dute euren artean eta urtean bi aldiz, gutxienez, elkartzen dira koadrilako lagun guztiak. Herriko jaietan bazkaria egiten dute, eta udaberrian berriro elkartzen dira. Hori bai, urte asko dira Santionean kafea hartzen ez dutela.


Hona hemen argazkian azaltzen direnak, ezkerretik eskumara: Pedro Mari Irizar, Pello Lete, Jose Ignacio Bareño, Bautista Moreno, Jose Jabier San Sebastian (puruarekin dagoena), Jose Luis Zabalo, Jesus Arregi, Ignacio Garcia eta Jose Luis Ena.

Argazkia: Pello Lete



### ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!



## POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

## GOIERRI AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

## KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

## ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

## OGIZUN koop. elk. okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10  
BERGARA OÑATI  
943 76 45 53 943 78 24 13

## ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko urriaren 1a / 216. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Goizperrek bat egin du Portugalgo enpresa batekin, moldeak ekoizteko

AINTZANE IRIZAR

Portugalgo Moldegama enpresarekin bat egin du Goizperrek, moldegintzaren negozioan sartzeko. Domekan bertan joango dira ibarreko 11 lagun Portugalera, lanbidea ikastera. Laster, planta berri bat jarriko dute Antzuolan, moldeak egiteko.

Aspalditik zuten elkarren berri Moldegama eta Goizper enpresak. Izan ere, Moldegamak moldeak egiten ditu, eta Goizperren hornitzaileek moldeak behar izaten dituzte Antzuolako enpresari hainbat lan egiteko. Plastikaren alorrean, batez ere, inguruko hainbat enpresak piezak egiten dizkio Goizperri; pieza horiek egin ahal izateko moldeak ekoizten ditu Portugalgo Moldegama enpresak.

2000. urtean jarri ziren harremanetan bi enpresak eta dagoneko bat egin dute. Orain, Portugalgo enpresaren kapitalaren zati handiena Goizperrena da.

### ANTZUOLAN PLANTA BERRI BAT

Orain dela hilabete batzuk joan ziren Portugalera negozio berriko arduraduna izango dena eta ekoizpen eta teknikari ardura



Goizperren eraikinean jarriko dute moldeak egiteko lantegia.

dunak izango direnak. Nazare ondoan dago Moldegamaren lantegia. Molde handiak eta ertainak egiten dituzte hantxe. Etzi bertan, hamaika langile joango dira hara, Goizperrek kontratatu berri dituenak, lanbidea ikasteko helburuarekin. Horietako batzuk

hilabete batzuk besterik ez dute egingo hantxe, eta beste batzuk, berriz, urtebete inguru.

Gero, Antzuolan, Goizperren eraikinean bertan, lantegi berria jarriko dute, molde txikiak egiteko. Orain Portugalera doazen langileak, gero, Antzuolan hasi-

ko dira lanean. Dena dela, Portugalgo lantegiak beré horretan jarraituko du, molde handiak eta ertainak egiten.

Olaker enpresako ikertzaileek ere zeregin garrantzitsua izango dute; moldegintzaren munduan ere sartuko dira.

## HERRITARREN HITZA / Fernando Lete • Elkarriko kidea

### Aukera garaia, konpromiso garaia

Konponbiderako atea irekitzeko aukera baten aurrean gaude. Euskadin, Katalunian eta Estatuan elkarriketarako mezuak dira nagusi eta inbibilismo itsu eta gogor baten ondoren, esperantzarako bideak zabaltzen hasi dira.

Aukerak, noski, zailtasunak ere baditu, eta baliteke alderdiek, bazterketa gabeko elkarriketari ekin aurretik, estrategia politikoa sendotzeari ekitea, baina, gaur, gizarteak akordioak eskatzen ditu, eta orain konpromisoak behar dira.

Aukera eta zailtasunez betetako egoera batean, beharrez-

koa da itxaropenak konponbiderako konpromisoetan finkatzea, bideak aztertu eta bakoitzak bere egin beharrak bete. Beharrezkoak dira baita ere, indarkeriarik eza eta giza eskubideen, pluralismoaren eta bazterketa gabeko elkarriketaren aldeko baldintzak sortzea.

Elkarrik, aurreapausoak emateko bidean, plangintza bat antolatu du datozen hilabeteetarako.



"Gizarteak akordioak eskatzen ditu; konpromisoak behar dira"

Bihar Donostian manifestazio bat dugu "Konpromiso handiagoa giza eskubideekin eta denon arteko elkarriketa" lelopean.

Euskal Herriko beste herri batzuetan bezala, Antzuolako adin eta ideologia desberdinetako 20 lagunek eztabaida mahai bat osatuko dute, bakearen gainean.

Jakingo duzuenek, 122.500 sinadura bildu ondoren eta Es-

kaera Eskubidea aldarrikatuz, Nafarroako Parlamentuan eta Eusko Legebiltzarrean aurkeztu ziren, bazterketa gabeko mahai bat eskatuz.

Munduan zehar hainbat gatazka konpontzen parte hartze garrantzitsua izan duten 10 herrialdeetako adituak izango ditugu gure artean.

Ikusten duzuenek, badago zer eginik, denok beharrezkoak gara ibilbide honetan, ezin dugu alboratu begiratu edo uko egin aukerari, tokian tokian, bakoitzak konpromisoak onartuz, etorkizun hobeago baten alde.

## LABUR

### Antzerki ikastaroa antolatu du Idolaz euskara elkarteak

Urriaren 19an eta 26an eta azaroaren 2an eta 9an izango dira antzerki eskolak, 18:00etatik 20:30era. Oihulari Clown taldeko Beatriz Egizabal izango da irakaslea. Izena emateko, liburutegira jo dezakezue, urriaren 5ean, 6an eta 7an. Bazkideek 25 euro eta besteek 30 ordaindu beharko dute.

### Aiherra-Antzuola Korrikaren batzarra, gaur

Gaur, egubakoitza, Aiherra eta Antzuola artean antolatuko duten Korrikaren gaitzeko batzarra egingo dute. Udaletxeko beheko batzar gelan egingo dute bilkura, 18:30ean. Herritar guztiak eta elkarteetako ordezkariak deitu dituzte, ekintzak zehazteko eta lanak banatzeko.

### KZGunea eguen arratsaldetan zabalduko dute

Aurrerantzean eguenetan bakarrik zabalduko dute KZGunea, 16:00etatik 18:00etara, hain zuzen ere. Orain arte, egubakoitzetan bakarrik zabaltzen zuten, baina, badi-rudi, ez zela oso egun egokia erabiltzaileendako. Gogoratu Internet doan erabiltzeko aukera dagoela KZGunean.

### Egun-pasa egingo dute 1974. urtean jaiotakoek

Urriaren 16an egun-pasa joango dira 1974. urtean jaiotakoak. Errioxara egingo dute irteera, eta hantxe egingo dute kinto bazkaria. Parte hartu nahi dutenek datorren astelehena, urriak 4, baino lehen eman beharko dute izena honako telefono zenbaki hantetako batera deituta: 660 45 99 edo 659 45 17 27.



ELKARRIZKETA

JEAN MICHEL BARBIER/AIHERRAKO BELTZUNTZE ELKARTEKO KIDEA

“Urteurreneko ospakizunekin, helburua da aihertarren eta antzuolarron arteko harremanak indartzea”

Aurreko asteko egubakoitzean, Aiherratik Antzuolara arteko Korrikaren aurkezpena egin zuten. Hantxe izan zen Jean Michel. 20 urte dira bi herriok anaitu zirela, eta harreman horren gainean jardun dugu Jean Michelekin.

Zela sortu zen bi herrien arteko harremana?

Urbia inguruan, Aiherrako bi bikote oporretan ziren eta mendian zebiltzala, Antzuolako herritar batzuk ezagutu zituzten. Adiskidetu ziren eta euren arteko harremanarekin jarraitu zuten. Horrela, handik gutxira, Aiherrako gazte talde bati proposamena egin ziguten Antzuolara joateko, herria ezagutzera. Horrelaxe hasi zen, bada, gure arteko harremana.

Zelakoa izan da harreman hori urte hauetan guztietan?


Urtero-urtero egon gara aihertarrak Antzuolan eta antzuolarrak Aiherran. Antzuolaren

“Nik uste dut horrelako urratsetatik hasten dela biharko Euskal Herria eraikitzen”

kasuan, Udalak antolatu izan ditu hainbat ekitaldi; Aiherran, berriz, Beltzuntze elkarteak, Udalaren laguntzarik ez dugu eta izan.

Gure helburua beti izan da aihertarrok Antzuola eta Hegoaldea ezagutzea eta alderantziz, antzuolarrek Aiherra eta Iparraldea ezagutzea. Izan ere, herri bereko seme-alabak gara, hizkuntza bera dugu, nahiz eta hainbat desberdintasun izan. Horrela, hainbat irteera egin izan ditugu Aiherran antzuolarrekin eta baita Antzuola inguruan ere.

Ekitaldi ofizialez aparte, harreman pertsonalak ere sortu dira urte hauetan guztietan. Eta



egubakoitzeko aurkezpen ekitaldian zenbat jende egon zen ikusita, iruditzen zait jendeak baduela gogo harreman hauekin aurrera jarraitzeko.

Badirudi, baina, azkeneko urteotan epeldu egin dela harremana.

Bai, guk ikusten duguna da Antzuolako gazteek ez dutela interes handirik. Dena dela, 20. urteurreneko ospakizun hauekin, iruditzen zaigu elkarrekin lan egin ez, elkar ezagutzeko aukera izango duela adin guztietako jendeak. Gainera, Euskal Herrian sinisten baldin badugu, nik uste dut horrelako urratsetatik hasten dela biharko Euskal Herria.

Aurrera begira ere harreman horrekin jarraitzeko, zer asmo dituzue?

Nahi duguna da urteurreneko ospakizunekin harremanak sendotzea; eta hortik abiatuta, elkarrekin arteko harremanak sortzea, eskoletako umeen artekoak, bi herrietako mendi elkarrekin artekoak, txirrindularitza zaleen artekoak eta abar.

BIZTANLERIA

Herria 2.000 biztanle izatera iritsi da berriz

Azkenaldian jende askok dihardu Antzuolan erroldatzen eta biztanle kopurua gora doa. Irailaren 21ean joan zen erroldatzera herriko bi milagarren biztanlea; Maite Solaun bergararra izan zen, eta berarekin batera, bere senarra eta bi seme-alabak erroldatu zituen. Udaleko arduradunek, ongi-etorria emateko, Antzuolaren gaineko liburu, bideo eta eskuorri sorta bat eman zioten Maiteari. Gauzak horrela, momentu hone-

tan, 2.004 biztanle ditu herriak, azkeneko hamar urteotan izan duen kopururik altuena.

80KO HAMARKADAN GEHIEN

70eko eta 80ko hamarkadetan izan zuen biztanle gehien Antzuolak. 1970. urtean 2.183 biztanle zituen; 1975. urtean, berriz, 2.240 biztanle; 1980. urtea izan zen biztanle gehien izan dituen urtea, 2.283 biztanlerekin. Gutxien, berriz, 1999. urtean izan zuen, 1.894 biztanle besterik ez zituen herriak urte horretan.



Maite Solaun, Udalak oparitutako liburuekin, udaletxean.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Urriak 2  
10:00: Antzuola-Urki (Neskak)  
12:00: Antzuola-Aitzgorri (Kadeteak)  
16:30: Antzuola-Legazpi (2. erreg.)

EMAITZAK

FUTBOLA

Antzuola 1 Gazteak 1 (2. erreg.)  
Bergara 1 Antzuola 2 (Gazteak)  
Antzuola 2 Aretxabaleta 3 (Kadet.)  
Almen 2 Antzuola 2 (Neskak)

PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.  
Olalde-Añorga (eskuz nag.) . . . 16-22  
Andazpe-Olalde (eskuz kadet.) . . 15-22

**Juan Cruz**  
**Zatozi!**  
Azken eguna  
zozketan parte hartu

Olympus 350  
kamera digitala

Herriko plaza 4. Tel.: 943 78 70 66. ANTZUOLA

**GAILUR**  
taberna eta  
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA  
Tel.: 943 78 70 32

**ANTZUOLA**  
Apainketak eta  
isolamenduak  
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA  
676 997 400  
Biltegia: 943 78 70 40

**LARREA**  
**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko urriaren 1a / 200. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Eguneko zentroa urriaren erdian edo amaieran zabalduko dute

IRATI AGIRREAZALDEGI

Jadanik jakinarazi dute zein arduratuko den Domingo Iturbe kalean dagoen zentro balioanizduna kudeatzeaz. Biharko Gipuzkoa S.L. enpresak hartuko du lan hori, eta behin langile guztiak kontratatuta urriaren bigarren hamabostaldian zabalduko dute zentroa.

Uda aurretik inauguratu bazuten ere, oraindik itxita daude zentro balioanizduneko ateak.

Hautagaiei euren proposamenak aurkezteko epe bat laga ostean, hauek aztertu eta egokiena Biharko Gipuzkoa S.L. dela erabaki du Udalak. Enpresa honek kudeatuko du, beraz, zentro balioanizduna.

### LANGILEAK AUKERATZEN

Enpresa langileak kontratatzen dihardu eta behin aukeraketa egin ostean, zentroa abian jarzeko moduan izango da.

Bertan janariaz, garbiketaz eta eraikina txukuntzeaz arduratuko den pertsona bat, erizain laguntzaile bat eta dinamizatzaile bat egongo dira. Bestalde, koordinatzaile batek zentroaren arduraz izango du baina ez da egunero zentroan egongo. Dena dela, langile kopurua erabiltzaileen arabera aldatu egin daiteke.



Eguneko zentroa zabalduko badute ere, oraindik ez dago bizilagunik zaintzapeko etxebizitzarako.

Oraingoz bi elgetarrek eman dute izena eguneko zentrori joateko, zaintzapeko etxebizitzak, berriz, ez du bizilagunik oraindik.

Guztira, zazpi lagunendako tokiak dago eguneko zentroan eta udaletxetik esan digutenez, elgetarrek ez ezik kanpotarrek ere

izango dute bertara joateko aukera, beti ere herritarrik ez bada, hauek baitute lehentasuna.

### ZERBITZUAK

Eguneko zentroan hainbat zerbitzu eskainiko dituzte. Etxetik zentrorako garraioaz gain, gosa-

ria eta bazkaria emango diete bertan. Osasunaren jarraipena egingo diete eta behar dutenean baita sendagaiak eman ere. Adinekoren garbiketaz ere arduratuko dira zentroan. Bestalde, gorputza eta memoria lantzeko arketak ere egingo dituzte.

## EKONOMIA

### Udalak 350.000 euroko diru eskaria egin du aurreikusitako sarrerak iritsi ez direlako

I.A.

Aurtengo aurrekontuak egiteko orduan Udalak hainbat diru sarrera aurreikusi bazituen ere, hauen ordainketa atzeratu egin da.

Ondorioz, EAJ-EA koalizioak eta Aralarrek diruzaintza eragiketa baten bidez 350.000 euroko diru eskaria egitea adostu zuten irailaren 9ko udalbatzarrean.

Atzeratu diren ordainketen artean daude, besteak beste, Torrealdeko lurren salmentaren truke eta Uriburuko lurren aprobetxamendua dela eta enpresek Udalarari ordaindu beharrekoa.

Adostasunera iritsi ondoren, ordainketa geroago egingo dute enpresek, beraz, beste hainbat gasturi aurre egiteko eskaria egin behar izan du Udalak.

### DIRU SARREREN PLANGINTZA

Diru eskari hau ez da aurrekontuetan azalduko, baina datorren urteko diru sarreraren zati bat diruzaintza eragiketa hau ordaintzeko erabiltzea eskatu zuen Aralarrek udalbatzarrean dute.

Bestalde, EAJ-EAk eta Aralarrek hitzarmen bat sinatu zuten apirilean agintaldiko diru sarreraren plangintza egiteko eta inber-

tsioak lehentasunen arabera ordenatzeko. Baina Aralarren esanetan EAJ-EAk ez du hitzarmen hori bete. "Inbertsioak lehentasunen arabera ordenatzeko apirilerako batzar bat adostu genuen, baina EAJ-EAk atzeratu egin zuen gaur arte. Aralartik espero dugu hitzartutako konpromisoak beteko dituela EAJ-EAk", diote Aralarroek.

## LABUR

### Bi odol emailek zilarrezko domina jasoko dute

Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak urteroko bilera egingo du datorren urriaren 17an Donostian, Anoetako belodromoan. Nahi duten odol emaileak joan ahal izango dira bertara, eta bazkaria izango da. Bazkalostean, diplomak, dominak eta garaikurrak banatuko dituzte. Sarrituen artean bi elgetar daude: Jesusita Retolatza eta Jon Iturri-kastillo, hain zuzen ere. Ekitaldian zilarrezko domina jasoko dute biek, 25 aldiz odola eman dutelako.

### Aixolako erreka ur kalitatea oso ona dela jakinarazi dute

Foru Aldundiak eskatuta Ekor lur aholkularitzak Gipuzkoako ibaietako uren kalitatea aztertu du eta emaitzak txosten batean eman ditu ezagutzera. Elgetari dagokionez, Aixolako erreka oso onaren ur kalitatea oso ona dela diote ikerketaren emaitzek. Era berean, bertako fauna oso egokiera onean dagoela ere jakinarazi dute eta amurrain eta ezkailu ugari daudela bertan. Ikerketa hau 2003an egindakoa da baina urtero jasotzen dituzte datuak.

### Eguaztenero filmak izango dira ikusgai Espaloian

Espaloia kafe antzokian zinekluba izaten da eguaztenero. Saiok 21:30ean hasiko dira. Film emanaldiez arduratzen den taldeko kideek jadanik zehaztu dituzte datozen hiru hilabeteetan eskainiko dituzten filmak. Urriaren honako filmak emango dituzte: hilaren 6an *El pianista*; 13an *Los lunes al sol*; 20an *La lengua de las mariposas*; eta 27an *La pequeña costurera china*.

Zinema zaleek, beraz, badute aukera nahikoa film ikusteko.

ELKARRIZKETA

PILI ARIN/ARTISAUA

*"Buztin zati batekin eta sormenarekin egin daitekeena erakutsiko dut"*

I.A.  
Urriaren 7an eskultura erakusketa zabalduko du Pili Arinek Espaloian eta ondoren, urriaren 19an buztingintza ikastaroa hasiko du bertan. Bere artisau lanari buruz eta ikastaroaz jardun dugu Piliarekin.

**Nondik datorkizu eskulangintzarako zaletasuna?**

Gustuko nuela deskubritu nuen. 17-18 urte nituela, buztinarekin jolasean hasi nintzen. Hainbat probaren ostean, ordea, utzi egin nuen. Gero soinetako irakasle hasi nintzen Almenen, baina plastikarako irakasle bat ere behar zenez nik hartu nuen lan hori, eta eskulanekiko kontaktua berreskuratu nuen. **Hainbat arlo landu dituzu. Zein duzu gustukoena?**

Eskulanetan bi dimentsiokolanek (pintura...) ez naute erakartzen; hiru dimentsiokoek bai, ordea. Edozein materialekin, baina bolumena duten lanak egitea dut gustuko.

**Eta materialetan?**

Buztina. Izan ere, egindakoa gustuko ez duzunean desegiteko aukera ematen du eta ikasteko oso praktikoa da.

**Elgetan ikastaroa emango duzu. Zer erakutsiko duzu?**

Ikastaroaren helburua sormena lantzea da. Inguruan ez dago bolumena lantzeko aukera eskaintzen duen ikastarorik, eta guk hori landuko dugu. Buztin zati batekin egin daitezkeenak erakutsiko ditut eta gero lanik egokienak aukeratu eta hauen moldea egingo dugu.

**Norentzat izango da ikastaroa?**

Ikastaroa dagoela jakin eta joateko gogoia piztu zaion edonor etorri ahal izango da ikastarora, 12 urtetik gorakoak badira, bai umeak eta baita helduak ere. Horrelakoetan umeengandik asko ikasten da, ez daukatelako buztin zati baten aurrean edozer gauza egiteko inolako arazorik.



*"Ikastaroaren helburu nagusia buztina erabiliz sormena lantzea izango da"*

**Zuk zeuk nolako artisau lanak egiten dituzu?**

Euskal mitologiako irudiak egin izan ditut. Azkenaldian, berriz, erreko harriekin eskultura txikiak egiten dihardut, eta oso gustura nabil batez ere emakumeen gorputzak lantzen.

*"Azkenaldian erreko harriekin eskultura txikiak egiten dihardut eta asko gustatzen zait"*

**Espaloian ikusgai izango dira zure eskulturak. Zer aurkituko du bertara joaten denak?**

Mitologiako irudi horiek, harriekin egindakoak, bustoak... ipiniko ditut, jendeak ikus dezan zenbat gauza ezberdin egiteko aukera dagoen.

ETXEBIZITZAK

Azaroan hasiko dira etxeak egiten Uriburun

I.A.

Uriburu inguruan etxeak egiteko proiektua aurrera doa. Bertan, txaletak, bi bizitzako etxeak eta elkarri atxikitako etxeak egingo dituzte, besteak beste, eta lanak azaroan hasteko asmoa dagoela jakinarazi du Hirualdebat SL enpresak.

Uriburu inguruan etxeak egiteko dagoen asmoa aspaldikoa bada ere, oraindik ez dira lanak hasi. Hala ere, proiektua aurrera doa, eta aurki hasiko dira lanean.

Hirualdebat SL promotorea arduratuko da bertan etxeak egiteaz, eta enpresatik jakinarazi digutenez, azaroan etxeak egiteko lehenengo lanak hasiko dituzte, lurrak mugitzeko obrak, hain zuzen ere.

Hainbat motatako etxeak egingo dituzte Uriburun. Besteak beste, hamar txalet, bi bizitzako beste 20 etxe eta baita elka-

rri atxikitako 18 etxe ere. Etxebizitza bloke bat ere eraikiko dute bertan. Azken hauek seguru aski mugatutako preziodun etxeak izango dira.

Oraindik etxeak salgai jarri ez badituzte ere, esan digutenez, asko dira Elgetatik etxe hauen gaineko informazio eske joan direnak, eta batzuek erreserba ere egin dute jadanik.

**ARAU SUBSIDIARIOAK**

Uribururako plan partziala, ordea, oraindik onartzeko zain daude Udalean.

Izan ere, arau subsidiarioetan hainbat aldaketa egin zituzten, besteak beste, Uriburu inguruarri eragiten diotenak. Aldaketa hauen arabera, bertan eraiki beharreko hainbat etxebizitza babes ofizialekoak edo kontzertatuak izan daitezke. Hasieran babes ofizialekoak bakarrik izatea begiesten zen arauetan.

Beraz, onarpenaren zain egon beharko dute.

KIROLA

Astelehenean hasiko da yoga ikastaroa

I.A.

Ikasturtea hastearekin batera Udal Kirol Zerbitzuak hainbat kirol ikastaro eskaini zituen, eta horietako batzuei datorren astelehenean ekingo dietela jakinarazi dute.

Yogako taldea jadanik osatuta dago eta hemendik aurrera izena ematen dutenak itxaron egin beharko dute baina baliteke gerora taldean sartzea.

Yoga ikastaroa astelehenean, urriaren 4an, hasiko da eta saioak 19:15etik 20:45era bitartean Herri Eskolako psikomotrizitate gelan izango dira astelehenean eta eguaztenetan.

Sasoian egoteko gimnasia saioak martitzenean, urriak 5, hasiko dira kiroldegiko gimnasioan eta eskolak martitzen eta eguaztenetik edukiko dituzte. 16:00etatik 17:00etara edadetuek eta 19:00etatik 20:00etara bitartean gainontzekoak.

Bestalde, asteen Tai-Chi ikastaroa hasi da, eta saioak martitzen eta eguaztenetik egingo dira.

Aerobik eskolak ere joan zen asteen ipini zituzten abian. Eskolak astelehen eta eguaztenetan 19:15etik 20:15era bitartean dira, eta oraindik izena emateko aukera dago. Informazio gehiago nahi duenak Udal Kirol Zerbitzura jo dezake: 943 76 80 22.

**DANBAKA**

DEBAGOIENENKO I. MUSIKA LEHIAKETA

Parte har ezazu Goienak eta Espaloia Kafe Antzokiak antolatzen duten musika lehiaketan

Estilo guztiak ditugu gustuko, zuena ere bai!

**ALBAITARIAK**

**ARTAZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67 / 607 48 71 19

**ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak)** 943 76 43 29 / 609 54 16 13

**ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala)** 943 76 43 29 / 609 54 16 13

**IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak)** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

**ANALISI KLINIKOAK**

**LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

**BARNE MEDIKUNTZA**

**IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

**DENTISTAK**

**AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23

**ARAMBURU HORTZ KLINIKA** Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46

**ASTIAZARAN SOLOZABAL** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95

**BERGARA HORTZ KLINIKA** Bidekurutzeta 36, behe. 943 76 05 77

**GOROSABEL J. Alberto** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88

**CAVIGLIA Silvana** S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54

**IRIARTE Idoia** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65

**SAINZ Ana** Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69

**TRIPALDI Enrike** Justo Garate 1. 943 76 70 76

**DIETISTAK**

**ALBERDI Mireia** Olanan etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA

Ibargarai 44, BERGARA. 943 76 60 45 / 646 43 34 58

**ERREHABILITAZIO FISIKOA**

**LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

**FISIOTERAPEUTAK**

**ARZAK Miren** (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

**BASTERRETXE, Maria** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

**HOMEOPATA**

**GANUZA Susana** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

**MASAILARIAK**

**AZPEITIA Irune** Ibargarai 44, behe. 943 76 73 43

**CASANELLAS Jabier** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78

**ETXEBERRIA Ana** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

**MEDIKUNTZA ESTETIKOA**

**BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

**MEDIKUNTZA OROKORRA**

**OXIRONDO KONTSULTATEGIA** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50

**OTORRINOLARINGOLOGOA**

**IGARTUA ALMANDOZ Julian** Barrenkale 35-1 ezker. 943 76 70 91 630 653 202

**PODOLOGOAK**

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA** Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84

**AZPIAZU Arantzazu** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

**PSIKIATRA**

**GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64

**PSIKOLOGOAK**

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatría, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80

**URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13

**ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

**YOGA**

**SAMADHI YOGA** Masterreka 13, behe. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO  
**OSASUN GIDA**  
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.